


Kostuen kontabilitatea

EAZ Gradua: bigarren ikasturtea

Irakaslea: Gotzon Garmendia Aldasoro

Azterketa (2020-2021)

Donostiako Ekonomia eta Enpresa Fakultatea
EHU



Egilea: Beñat Zunzunegi



Gizapedia

gizapedia.hirusta.io

KOSTUEN KONTABILITATEA
2021eko ekaina

Teoria

Arrazoitu itzazu erantzun guztiak.

1. galdera: Kostuen kontabilitatea eta kontabilitate finantzarioa

Aipa itzazu bi gastu kostu ez direnak, 2 kostu gastu ez direnak eta bi gastu kostu direnak, baina kopuru desberdinekin.

2. galdera: Kostu-motak

Kasu hauetako adibide bana jarri, baldintzak zergatik betetzen dituen azalduz.

- (a) Kostu aldakorra, zuzena sailarentzat, zuzena produktuentzat eta ekidingarria.
- (b) Kostu mistoa, zuzena sailarentzat eta zeharkakoa produktuarentzat.
- (c) Kostu finkoa, zuzena produktuentzat, zuzena sailarentzat eta ekidinezina.
- (d) Kostu finkoa, zeharkakoa sailarentzat eta produktuentzat.

Oharra: Langile kostuaren adibidea behin bakarrik jar daiteke.

3. galdera: Arautegia

- (a) Biltegietako irteerak baloratzeko, zein rizpide onartzen ditu Kontabilitate Plan Orokorrak eta 2015eko apirileko ICAC-en ebazpenak?
- (b) Zer dio arautegi horrek gutxiketei buruz?

4. galdera: Aurrekontuak

Aurreikusitako Egoera balantzea egiterakoan, zein aurrekontutatik aterako dira kontzeptu hauek zenbatekoak?

- (a) Ibilgetu eta amortizazio metatuak
- (b) Bezeroak
- (c) Produktu bukatuen bukaerako izakinak
- (d) Kapital soziala
- (e) Ibilgetu hornitzaileak
- (b) Bankuak k/k
- (c) Galdu-irabaziak
- (d) Erreserba legala

5. galdera: Kostu estandarrak

- (a) Enpresa baten ekoizpen gastu orokorrek, lan unitatea Kw/h izanik, aldeko desbideraketa teknikoa duite. Aipa ezazu eragin duen barneko arrazoiren bat. Azaldu ezazu baita ere beste desbideraketa bati eragin diezaiokeen eta estandarra aldatu beharko litzatekeen datorren ekitaldirako.
- (b) Sarreraren desbideraketa tekniko aurkakoa dugu. Aipa ezazu horren kanpoko arrazoi iraunkor bat. Estandarra aldatu beharko al litzateke datorren ekitaldirako?

Kostu historikoen ariketa

EKONGARRI enpresak, landareentzako bi ongarri mota ekoitzen ditu EKOM izeneko lehengai berbera erabiliz:

- EKO1, loredun landareentzako, 10kgko paketetan;
- EKO2, landare azidofloentzako, 8kgko paketetan

Ekitaldiko datuak:

- Hasierako izakinak:
 - EKO1, 300 pakete, 4€ /pakete,
 - EKO2, 50 pakete, 3€/pakete,
 - EKOM, 1000kg, 0.15€/kg.
- Bukaerako izakinak:
 - EKO1, 200 pakete,
 - EKO2, 210 pakete
 - EKOM, 5000kg.
- Aurreikusitako gutxiketak
 - EKO1, 50 pakete,
 - EKO2, 20 pakete,
 - EKOM, 500kg (hauetatik 300kg EKO1 produktuari dagokie).
- EKOM lehengaiaren erosketak: 90.000kg (0.20€/kg)
- EKO1 pakete bakoitzak, 10kg EKOM lehengai daramatza; EKO2-k, berriz, 8kg.
- Ekitaldiko ekoizpena:
 - EKO1, 6000 pakete,
 - EKO2, 3000 pakete.
- Langile kostua (dena kostu finkoa)
 - EKO1, 6000€
 - aurreikusitako lan-orduak: 1000h
 - benetako lan-orduak: 1100h
- EKO1eko gastu orokorrak:
 - kostu aldakorrak: 7000 makina/h (10 €/h)
 - kostu finkoak: 3000 €(1400 orduko jarduera aurreikusita, benetakoa 1.300 izan delarik)
- merkaturatze-kostuak: sarreraren %20
- administrazio kostuak, bi produktuatarako: 1000€(EKO1eko pakete bakoitzari %20 gehiago dagokio EKO2-ri baino).
- salmentak: EKO1, 6.100 PAKETE (7€/pakete)
- biltegi-irteera irizpidea: FIFO, EKOMentzat, eta LIFO, EKO1entzat.
- **Eskatzen da:**
 - Gutxiketak, dirutan nahiz unitate fisikotan;
 - Egitura funtzionala, egozpen arrazionalarekin, EKO1 produktu bakoitzeko ekoizpen kostua kalkulatz
 - EKO1 produktuaren emaitza